BALIDATU PROGRAMA:

DONOSTIAKO ENPRESA-PROIEKTU BERRITZAILEEN TEKNOLOGIAK INGURUNE ERREALETAN BALIOZKOTZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA

ATARIKOA

Donostia Sustapenak, hiriko berrikuntza-agentzia den aldetik, 2025ean sendotu egin du hiriko berrikuntzaren erreferente bihurtzeko apustua, lankidetza publiko-pribatuan, zerbitzuen pertsonalizazioan eta ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan arreta jartzean oinarritutako eredu baten bidez.

Horretarako, pertsona, enpresa eta proiektu berritzaileei laguntza pertsonalizatua eta kalitatezkoa eskaintzearen alde egiten du, ikuspegi estrategiko argi batekin. Hala, hiriko berrikuntza-ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean, berrikuntza publikoa eta ekintzailetza berritzailea indartu nahi ditu, eta Donostia berrikuntza-gune gisa kokatu.

Testuinguru horretan, Donostia Sustapenaren lehentasunetako bat hiriko berrikuntza sustatzea eta enpresa-proiektu berritzaileen hazkundea bultzatzea da, hiriaren garapenerako funtsezko oinarriak baitira.

Gaur egun, 15.400 enpresa baino gehiago daude hirian, hau da, 81 enpresa 1.000 biztanleko. Horrenbestez, Donostia enpresa-dentsitate handiena duten Espainiako hirien artean laugarren postuan dago, Bartzelonaren, Madrilen eta Valentziaren atzetik, baina Malaga, Sevilla eta Bilbo bezalako hiriburu handien aurretik.

Donostiako enpresa-sarearen bilakaerari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da ezagutzan intentsiboak diren zerbitzuak (SEIC) hiriko ekonomiaren eragile nagusietako bat bihurtu direla. Izan ere, sektore horrek 6.300 establezimendu baino gehiago zituen 2024an, eta udalerriko barne-produktu gordinaren (BPG) % 48 sortzen zuen. Sektore horrek gero eta garrantzi handiagoa izateak, beste faktore batzuekin batera, Donostiako ekintzailetza-jardueraren tasak (TEA) 2018az geroztik etengabe gora egitea ahalbidetu du. Hala, 2024an azken urteetako mailarik altuenera iritsi zen, % 7,9ra.

Bestalde, enpresa txikiak dira nagusi hiriko enpresa-sarean: enpresen % 71,9k langile bat edo bi dituzte, eta % 91,3k, berriz, bat eta bederatzi langile artean.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, Donostia Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoa indartu zuen 2025ean, eta 6 milioi euro bideratu zituen horretara. Urte horretan, 972 pertsonak parte hartu zuten ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan; horietatik % 51,4 emakumeak ziren, eta % 45ek 35 urte baino gutxiago zituzten. Babestutako 224 ekintzailetza-proiektu berrietatik, erdiak inguru (% 51) oso berritzaileak dira. Horrek agerian uzten du Donostia Sustapenak ezagutzan intentsiboak diren zerbitzuen eta biozientzien sektoreen alde egindako apustu estrategikoa. 2026an ere, Donostia Sustapenak hirian enpresa-proiektu berriak sortzen laguntzearen alde egiten jarraitzen du, hazkunde ekonomikoa eta tokiko enplegua sustatzeko funtsezko eragileak direlako. Horregatik, hainbat programa eta neurri jarri ditu abian, enpresa-sare berritzailea sustatu eta indartzeko eta enpresa-proiektu berritzaile berriak garatzen laguntzeko. Horien guztien helburua hiriaren lehiakortasuna eta hazkundea bultzatzea da, ikerketa eta garapeneko (I+G) ekosistemaren bidez.

Esparru horretan kokatzen dira laguntza hauek, berrikuntza sustatzea eta teknologia merkatura transferitzea oinarri dutenak. Helburua Donostiako enpresa berritzaileek bultzatutako enpresa-proiektuen hazkundea sustatzea da. Horretarako, proiektu pilotuak garatuko dira benetako jarduera-inguruneetan, erakunde traktore batekin elkarlanean. Horrela, enpresek beren soluzioak lehen bezeroekin baliozkotu ahal izango dituzte, edo soluzio horiek egokitu eta merkatu-segmentu berrietara zabaldu.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza hauen helburua oinarri teknologikoko startup berritzaileei laguntzea da, beren produktuek merkatuan benetako premia bati erantzuten diotela egiazta dezaten. Horretarako, ingurune errealetan garatutako proiektu pilotuak finantzatuko dira. Proiektu horien bidez, startup-ek beren soluzioak lehen bezeroekin probatu, merkatu-segmentu berrietara egokitu eta merkaturatu aurretik behar bezala funtzionatzen dutela frogatu ahal izango dute. Horrela, dagoeneko baliozkotutako prototipo batetik abiatuta, funtzionamendua frogatuta duen eta merkaturatzeko prest dagoen soluzio bat garatu ahal izango dute.

Beraz, proiektuek berritzaileak izan beharko dute, eta erakunde traktore batekin elkarlanean ingurune erreal batean baliozkotzeko aukera eskaini beharko dute. Gainera, startup-en hazkundea bizkortzen eta haiek sendotzen lagundu beharko dute. Horretarako, soluzioen heldutasun teknologikoa handitu, bezeroei eta inbertitzaileei aurkezteko moduko ebidentziak eta kasu frogagarriak sortu, eta baliozkotze teknikoaren eta lehen merkaturatzearen arteko denbora laburtu beharko dute.

Laguntza hauek berrikuntza sustatzeko eta teknologia merkatura transferitzeko apustuan oinarritzen dira, eta Donostia Sustapenaren berrikuntza-programetan parte hartu duten startup-ek bultzatutako proiektuetara bideratuta daude. Hala, oinarri teknologikoko enpresek merkatura iristeko dituzten oztopo nagusietako bati erantzun nahi zaio: beren teknologiak funtzionatzen duela frogatzeko ingurune errealetara iristeko zailtasunari.

Laguntzaren onuraduna startup-a izango da beti. Erakunde traktoreak baliozkotzeko ingurunea eskainiko du, eta bere instalazioak, datuak, ekipamenduak edo langileak erabiltzeko aukera emango du. Nolanahi ere, ez da laguntza hauen onuraduntzat hartuko.

Oinarri hauen ondorioetarako soilik, Donostia Sustapenak oinarri hauen babesean inolako kontraprestaziorik gabe emango dituen diru-kopuruei «dirulaguntza» edo «laguntza» deituko zaie, bereizketarik egin gabe. Horrek ez du esan nahi dirulaguntzei buruzko araudi orokorra aplikatuko zaienik, oinarri hauetan berariaz aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan izan ezik.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HIRUROGEI MILA (60.000) EURO bideratuko ditu Balidatu programara.

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatu ahal izango du, hala erabakitzen badu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza ematea justifikatzen duen baliozkotze-proiektu pilotua gauzatu behar duen edo laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea, betiere oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, bertakoak zein atzerrikoak, bai eta nortasun juridikorik gabeko haien elkarteak ere, baldin eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eratuta badaude eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpoan geratzen dira ondare-sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Oinarri hauetan zehazten dira laguntzak eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua. Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, artikulu hori berariaz aplikagarritzat jotzen baita ondorio hauetarako.

Ezin izango zaie laguntzarik eman honako egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dagoen araudiak ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituztenei.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortu dituztenei, edo laguntza horiek jasotzea eragozten dien legezko debekuren bat dutenei. Horien artean sartzen dira sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik zigortutakoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez

betetzeagatik zigortutakoak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Era berean, ezin izango dute laguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plan bat izan behar duten baina halakorik ez duten enpresek. Ezta 50 langile baino gehiago izan eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere, Estatuko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenei.
- Aurretik jasotako laguntzaren bat osorik edo zati batean itzultzeke dutenei, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dutela egiaztatu arte.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute izapidea egiten ari den administrazioaren esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak berriro ez aurkezteko. Gainera, administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau, prozedura ebazteko eta dagozkion ordainketak egiteko:

- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Onuradunaren Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) historikoa.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko unean edo ordainketak egiteko unean udal-zerga bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten onuradunek egoera hori erregularizatu dutela egiaztatu beharko dute, jakinarazpena jaso eta HAMAR (10) egun balioduneko epean.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Irabazi-asmoz jarduera ekonomiko bat egiten duen eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoen pertsona fisikoa izatea, edo eskabidea aurkezteko unean ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eratutako zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa izatea. Bi kasuetan, merkatura bideratutako jarduera ekonomikoa egin beharko du.

b. Oinarri teknologikoko startup berritzailea izatea. Oinarri hauen ondorioetarako, halakotzat hartuko da jarduera nagusia ezagutza zientifiko edo teknologikoan oinarritutako teknologia, produktu edo zerbitzu berritzaile bat garatzea eta ustiatzea duen pertsona fisiko edo juridikoa, teknologia, produktu edo zerbitzu hori berea izan nahiz lizentzia bidez eskuratua izan.

   Pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkartea bada, honako baldintza hauek ere bete beharko ditu:

   Eskabidea aurkezteko unean enpresa txikitzat hartzeko baldintzak betetzea. Horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu:

   I. Jarduera ekonomiko bat egitea.
   II. Aktiboak edo eragiketa-bolumenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztutakoaren arabera, HAMAR (10) milioi euroko muga ez gainditzea.
   III. Plantillako langileen batezbestekoa 50 pertsonatik beherakoa izatea.
   IV. Aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka sozietatearen % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik ez izatea, salbu eta aipatutako Foru Arauaren IV. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzen zaien arrisku-kapitaleko sozietateak edo funtsak badira.
   Erakundea Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera sozietate-talde bateko kide bada, langileen kopurua kalkulatzeko talde horretako erakunde guztiak hartuko dira kontuan.

c. Laguntza-eskabidea aurkezteko unean legez eratuta egotea eta merkatura bideratutako jarduera ekonomikoa egitea.

d. Laguntzaren xede den jardueraren zerga-egoitza eta/edo lantokia Donostian egotea.

e. Donostia Sustapenaren berrikuntza-programetan parte hartu izana, hala nola EKINN+, EKINN+ Salud, Incubadora edo antzeko beste programa batzuetan.

f. Erakunde traktore bat identifikatuta izatea eta harekin harremanetan jarri izana. Hori egiaztatzeko, bi aldeek sinatutako konpromiso-gutuna aurkeztu beharko da.

Honako hauek ezin izango dira onuradun izan:

a. Irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak.

b. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen, ondare-sozietateen, elkargo profesionalen eta/edo sektore publikoko erakundeen mendekoak diren edo erakunde horiek % 25etik gorako partaidetza duten entitateak. Sektore publikoko erakundetzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasotakoak. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekarri ziren.

   Salbuespen gisa, apartatu honetan deskribatutako egoeran egon arren, honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten erakundeak laguntzen onuradun izan daitezke:

   - Erakunde eskatzailea mendekotzat duen edo erakunde eskatzailean % 25etik gorako partaidetza duen entitatea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kidea izatea.
   - Erakunde eskatzailea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak araututako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kidea izatea.

c. Baliozkotzeko ingurune erreala eskaintzen duen erakunde traktorea ezin izango da, inola ere, laguntza hauen onuradun izan.

Erakunde traktoreak bete beharreko baldintzak

Erakunde traktorea industria- edo zerbitzu-enpresa bat, ospitale edo osasun-zentro bat, azpiegitura bat, administrazio bat, erakunde publiko bat edo antzeko beste entitate bat izan daiteke. Honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Benetako jarduera-ingurune bat eskaintzea, baita startup-aren teknologiak erantzun diezaiokeen premia bat izatea ere.

b) Proiektu pilotua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak erabiltzeko aukera emateko konpromisoa hartzea: instalazioak, datuak, ekipamenduak eta/edo harremanetarako langileak.

Honako hauek ezin izango dira erakunde traktore izan:

- Startup-aren bazkide diren edo haren enpresa-talde bereko kide diren erakundeak.
- Spin-offen kasuan, teknologiaren jatorrian dauden erakundeak.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Proiektu bakoitzeko laguntza HOGEI MILA (20.000) eurokoa izango da gehienez, eta proiektu pilotuari lotutako diruz lagundu daitezkeen gastuen % 70eraino finantzatu ahal izango da. Startup onuradunak bere baliabideekin ordaindu beharko du gastu horien gainerako % 30a.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, Estatutik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorrita ere. Nolanahi ere, beste dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoa errespetatu beharko da, eta honako baldintza hauek bete:

Laguntza hauen azken hartzaile guztiei, jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei (autonomoei) zein pertsona juridikoei, Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak aplikatuko zaizkie. Erregelamendu horrek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak *de minimis* laguntzei nola aplikatu arautzen du.

Hortaz, azken hartzaile bakoitzari emandako *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezin izango da 300.000 eurotik gorakoa izan hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Horretarako, araubide honen mende daudenek jasotako laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpen espresua aurkeztu beharko dute, dagokien zenbateko-muga betetzen dutela egiaztatzeko. Hiru zerga-ekitaldi hartuko dira kontuan: laguntza ematen den ekitaldia eta aurreko biak. Epea kalkulatzeko, laguntza ematen den unea hartuko da erreferentziatzat.

Laguntza emateko ebazpenean, onuradunari dirulaguntza baliokide gordinaren zenbatekoa jakinaraziko zaio, *de minimis* laguntzen muga aplikatzeko.

Oinarri hauen arabera jasotako laguntzaren zenbatekoak ezin izango du, ez bere kabuz ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

7. ARTIKULUA. ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Laguntza hauen deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta, ondoren, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Eskabideak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean laburpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, deialdia itxi arte, hau da, 2026ko abenduaren 10a arte.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, dirua soberan geratzen bada edo aurrekontuko zuzkidura handitzen bada, Donostia Sustapenak eskabideak aurkezteko epea luzatu ahal izango du, egoki irizten badio. Horretarako, oinarri hauek aldatu beharko ditu, eta aldaketa dagozkion kanalen bidez argitaratuko da.

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus). Eranskin guztiak osorik bete eta sinadura digitalaren bidez behar bezala sinatu beharko dira.

Informazioa eskatzeko edo kontsultak egiteko, 943 482 800 telefono-zenbakira deitu edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzi ahal izango da.

Laguntza ekonomiko hau eskatu nahi dutenek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Administrazio-dokumentazioa:

1. **Eskabidearen eranskina.**
2. **Startup eskatzailearen banku-datuen eranskina**, dagokion banku-erakundeak zigilatua, edo horren baliokidea den banku-dokumentua.
3. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, **haren NANaren kopia**.
4. Eskatzailea pertsona juridikoa bada, **haren IFKren kopia** eta, hala badagokio, **ahaldunaren NANaren kopia**.
5. Erakunde traktorearen **konpromiso-gutuna**.

2. Dokumentazio teknikoa:

- Memoria tekniko deskribatzailea («Memoria teknikoa» eranskina):
  Memorian teknologia, erakunde traktorea eta egin nahi den baliozkotzea deskribatuko dira. Honako atal hauek jasoko ditu:
  1. Startup-aren eta enpresa-proiektuaren identifikazio-datuak.

2. Teknologiaren deskribapena: zer arazo konpontzen duen, gaur egungo garapen-egoera eta heldutasun teknologikoaren maila.
3. Erakunde traktorea: erakundearen deskribapena, eskaintzen duen benetako jarduera-ingurunea eta teknologiak erantzuten dion premia.
4. Baliozkotze-proposamena: helburuak, baliozkotu beharreko hipotesiak, irismena, adierazle teknikoak eta erabilera-adierazleak, eta aurreikusitako arrakasta-irizpideak.
5. Lan-plana: faseak, zereginak, arduradunak eta kronograma.
6. Baliozkotzea gidatuko duen lantaldearen deskribapena (barneko zein kanpoko kideena). Deskribapen horrek agerian utzi beharko du proiektuak zenbateraino dituen eskura helburuak lortzeko beharrezkoak diren langileak, ekipamenduak, finantzaketa eta bestelako baliabideak.
7. Aurreikusitako eragina (ekonomikoa eta erakundeari dagokiona).
8. Proiektu pilotuaren aurrekontu xehatua, diruz lagundu daitezkeen gastu-kontzeptuen arabera.

Memoria modu erraz eta argian idatzi beharko da, proiektua ulertzea zailtzen duten teknizismoak saihestuz. Gainera, 9. artikuluan zehaztutako irizpideak baloratzeko behar den informazio zehatza jaso beharko du. Gehienez ere 6 orrialde izango ditu.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia aztertu ondoren egiaztatzen badu dokumentazioa ez dagoela behar bezala beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko dio akatsak zuzentzeko edo falta diren dokumentuak aurkezteko, hamar egun balioduneko epean. Halaber, jakinaraziko zaio epe horretan eskatutakoa betetzen ez badu eskabidea baztertu egingo dela, bestelako izapiderik gabe, eta horri buruzko ebazpena emango dela.

Donostia Sustapenak proiektuaren memoria teknikoari buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu, baita proposamena behar bezala baloratzeko, haren jarraipena egiteko edo egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio osagarria ere.

Akatsak zuzentzeko errekerimenduak onuradunak harremanetarako emandako helbide elektronikora bidaliko dira (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web-aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, dagokion espedientearen barruan.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskabidea aurkezteko erabilitako bide beretik aurkeztu beharko da. Ez da posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik onartuko.

Laguntzak emateko edo ukatzeko erabakia Donostia Sustapenak berariaz emandako ebazpen baten bidez hartuko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web-aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, dagokion espedientearen barruan.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Laguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Prozeduran honako printzipio hauek errespetatuko dira: publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia.

Norgehiagoka bermatzeko, proposamenak memoria teknikoaren arabera ebaluatuko dira.

Donostia Sustapenak elkarrizketa bat egiteko eskatu ahal izango die startup-ari eta, hala badagokio, erakunde traktoreari, proiektu pilotuaren proposamena xehetasun handiagoz ezagutzeko eta hasierako balorazioa egiaztatzeko.

Eskabideak honako balorazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Berrikuntza, balio bereizgarria eta merkatuan irauteko gaitasuna	**35**
1.1. Teknologiaren edo soluzioaren berrikuntza-maila eta dauden beste aukerekin alderatuta eskaintzen duen balio bereizgarria, gaur egungo heldutasun teknologikoaren mailaren arabera.	12
1.2. Identifikatutako benetako premia.	8
1.3. Merkatuaren tamaina eta eskalagarritasuna.	7
1.4. Erakunde traktorearekin egindako baliozkotze-proposamenaren argitasuna eta koherentzia.	8
2. Bideragarritasuna, helburuak eta lan-plana	**33**
2.1. Baliozkotu beharreko hipotesien argitasuna, adierazle eta arrakasta-irizpide neurgarriekin.	9
2.2. Lan-planaren, kronogramaren eta aurrekontuaren koherentzia proposatutako helburuekin.	9
2.3. Esleitutako lantaldearen egokitasuna eta dedikazioa.	8
2.4. Finantza-gaitasuna eta aurreikusitako emaitzak lortzeko aukera errealak.	7
3. Startup-ean eta ingurunean izango duen eragina	**32**
3.1. Startup-aren hazkundea bizkortzeko eragina: heldutasun teknologikoan eta	14

produktua merkatuaren premietara egokitzeko prozesuan espero diren aurrerapenak.	
3.2. Eragin ekonomikoa eta estrategikoa: hazkundea, nazioartekotzea eta enplegua sortzea.	10
3.3. Eragin sozioekonomikoa eta hirian izango duena: tokiko berrikuntzari eta enpresa-sareari egindako ekarpena, profil profesionalen garapena eta gizarte- edo jasangarritasun-erronkekin duen lotura.	8
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	**100**

Eskabide bat hautatua izateko, gutxienez 60 puntu lortu beharko ditu. Beraz, gutxieneko puntuazio horretara iristen ez diren eskabideak baztertu egingo dira.

Onartutako proiektuak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera. Aipatutako irizpideen arabera baloraziorik onena lortu duten proiektuei esleituko zaizkie laguntzak, deialdian ezarritako mugak eta eskuragarri dagoen kreditua errespetatuz. Ebazpenean, onartutako proiektu bakoitzari emandako laguntzaren gehieneko zenbatekoa adieraziko da.

Bi eskabidek edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, 1. irizpidean puntuaziorik handiena lortu duenari emango zaio lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 2. irizpideko puntuazioa hartuko da kontuan, eta, berdinketak bere horretan jarraituz gero, 3. irizpidekoa. Hala ere berdinketa hausten ez bada, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera lehenetsiko dira.

Lehenik, behin-behineko ebazpena emango da, eta hamar egun balioduneko epea egongo da alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta, halakorik egonez gero, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpena emango da.

Eskabideak hautatzeko prozesuan, puntuazioaren arabera ordenatutako erreserba-zerrenda bat osatu ahal izango da. Horrela, onuradunen batek laguntzari uko egiten badio edo aurrekontua handitzen bada, Donostia Sustapenak zerrendako hurrengo eskabideari laguntza ematea onartu ahal izango du, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, deialdia ixten den egunetik zenbatzen hasita. Epe horren zenbaketan ez dira kontuan hartuko dokumentazioko akatsak zuzentzeko aldiak. Ezarritako epean ebazpenik ez emateak ez du esan nahi laguntza eman denik.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei.

Emandako ebazpenarekin ados ez badago, interesdunak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, ebazpenaren datatik gehienez ere hilabeteko epean. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, eta hark alegazioak izapidetzeko jarraitu beharreko prozeduren berri emango dio. Donostia Sustapenak erabakitakoa beteko da, eta, hala badagokio, bi aldeak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Oro har, diruz lagundu ahal izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozen gastuak, baldin eta proiektu pilotua gauzatzearekin zuzenean lotuta badaude eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezin izango da, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko epea 2026ko ekainaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitartekoa izango da. Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko fakturek aldi horretakoak izan beharko dute, eta epe berean osorik ordainduta egon beharko dute, hau da, 2026ko ekainaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitartean.

Diruz lagundu ahal izango dira erakunde traktorearen ingurune errealean proiektu pilotua gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak, honako kontzeptu hauei dagozkienak:

Diruz lagundu ahal izango dira erakunde traktorearen ingurune errealean proiektu pilotua gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak, honako kontzeptu hauei dagozkienak:

a. Soluzioa erakunde traktorearen premietara egokitzeko I+G gastuak, hala nola:

    i. Soluzioa egokitzearekin lotutako izaera zientifiko-teknologikoko azpikontratazioak.
    ii. Soluzioa egokitzeko beharrezkoak diren ezagutza teknikoak, patenteak edo teknologia-lizentziak kanpoko iturrietatik eskuratzea.

b. Soluzioa erakunde traktorearen ingurunean egokitu eta ezartzeko beharrezkoak diren materialak, osagaiak, sentsoreak, ekipamenduak, azpiegitura digitala, hodeiko zerbitzuak, software-lizentziak eta bestelako elementuak, betiere proiektu pilotua gauzatzeko aldiari egotz dakizkiokeenak.

c. Soluzioa egokitzeko edo erakunde traktorearen ingurunean ezartzeko ezinbestekoak diren araudi-izaerako gastuak:

   i. Araudiari buruzko aholkularitza edo antzekoa (jabetza intelektuala babesteko aholkularitza, zibersegurtasuneko auditoriak eta abar).
   ii. Aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen saiakuntzak, ziurtagiriak, homologazioak edo baimenak.

d. Langile-gastuak.
   Proiektu pilotuan lan egiten duten startup-eko langile teknikoen kostuak, benetan eskainitako eta behar bezala justifikatutako orduen arabera kalkulatuta. Kontzeptu honetarako laguntza ezin izango da BOST MILA (5.000) eurotik gorakoa izan proiektu bakoitzeko. Horrek esan nahi du gehienez 7.143 euroko langile-gastuak egotzi ahal izango direla.

e. Antzeko beste gastu batzuk. Donostia Sustapenak baloratuko du gastu horiek diruz lagundu daitezkeen, baliozkotu beharreko teknologiaren edo soluzioaren arabera eta proiektu pilotuaren garapenarekin duten lotura zuzena kontuan hartuta.

Kasu guztietan, onartutako proiektu pilotuan aurreikusitako jarduerak benetan egin direla gerora egiaztatzeko aukera emango duten entregagaiak identifikatu beharko dira.

Ez dira kontuan hartuko gastuak justifikatzeko aurkezten diren 300 eurotik beherako fakturak eta gastuen frogagiriak, zergak kanpo.

Txartel bidez, banku-transferentzia bidez edo helbideratutako ordainagiri bidez egindako ordainketen frogagiriak baino ez dira onartuko. Frogagiri horietan egindako eragiketaren datuak agertu beharko dira (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez dira banku-mugimenduen zerrendak onartuko, ezta BIZUM bidez egindako ordainketak ere.

Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Donostia Sustapenaren beste laguntza-programa batzuen bidez osorik edo zati batean finantzatutako fakturak.
- Enpresaren ohiko jarduerak edo jarduera errepikakorrak egiteko gastuak, hau da, programan parte hartu aurreko edo proiektu hau hasi aurreko egoerarekin alderatuta berrikuntzarik, hobekuntza nabarmenik edo merkatu berrietarako sarbiderik ekartzen ez duten jarduerei dagozkienak.

- Oinarrizko ikerketara bideratutako gastuak. Oinarrizko ikerketatzat hartzen da aldez aurretik zehaztutako aplikazio edo erabilera jakinik gabe egiten den ikerketa. Beraz, laguntza hau jasotzeko ezinbestekoa izango da helburu praktiko zehatz bat bilatzea eta emaitzek enpresa-eremuan aplikatzeko aukera izatea.
- Enpresak dagoeneko dituen aktibo finkoak (softwarea, aplikazioak, makineria eta abar) hobetzeko gastuak, baldin eta aktibo horiek enpresaren barne-kudeaketarako edo funtzionamendurako erabiltzen badira eta hobekuntzek ez badute loturarik proiektu pilotuaren xede den soluzio teknologikoa garatzearekin edo egokitzearekin.
- Webguneak garatzeko gastuak, salbu eta proiektu berritzailea eta lehiakortasuna hobetzeko proposamena webgunean bertan oinarritzen badira.
- Enpresaren ohiko jarduera gauzatzeko materialak erosteko eta ibilgetu materialean inbertsioak egiteko gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLO) 31. artikulua aplikatuko zaie, oinarri hauetan berariaz hala xedatzen baita.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Laguntza hau justifikatzeko azken eguna 2027ko uztailaren 31 izango da.

Laguntza osorik justifikatu beharko da, aurkezpen bakar batean. Beraz, laguntzaren xede diren gastu guztiak jasotzen dituen justifikazio bakarra onartuko da.

Laguntza emateko ebazpenean onartutako zenbatekoen arabera kalkulatuko da laguntza, eta ez azkenean egindako gastuaren arabera, gastu hori handiagoa bada. Ondorioz, ordaindu beharreko zenbatekoak ezin izango du, inola ere, gastu-kontzeptu bakoitzerako hasieran emandako zenbatekoa gainditu, ezta emandako laguntzaren guztizko zenbatekoa ere.

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

1. **«Justifikazioa» eranskina.**
2. **«Amaierako memoria» eranskina**. Programaren bidez garatutako proiektua edo abian jarritako jarduera deskribatuko du, eta enpresak benetan egindako lanaren emaitzak jasoko ditu. Gainera, hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak benetan eman eta

ezarri direla frogatzeko behar adina ebidentzia aurkeztu beharko dira, baita zerbitzu horiek enpresaren hazkundean izan duten eragin positiboa egiaztatzekoak ere.

3. **«Finantza-memoria» eranskina**, Excel formatuan.
4. Diruz lagundutako kontratatutako zerbitzu edo produktuen **fakturak**, 300 eurotik gorako gastuei dagozkienak, zergak kanpo.
5. **Langile-gastuen justifikazioa.** Langile-gastuak justifikatzeko, lan egindako orduen erregistroak, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak (RNT) aurkeztu beharko dira.
6. **Egindako ordainketen frogagiriak.**

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez da posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat, osorik edo zati batean, onartutako jarduerekin edo justifikatutako gastu-kontzeptuekin, aurrez onartutako eta behar bezala justifikatutako jarduerei dagokien zenbateko proportzionala baino ez da ordainduko.

Nolanahi ere, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea igaro eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostia Sustapenak dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio onuradunari, jakinarazpena jasotzen duenetik gehienez ere hamabost (15) egun naturaleko epean. Epe berri hori igaro ondoren dokumentazioa aurkeztu ez bada, laguntza ezetsitzat joko da eta, ondorioz, onuradunak kobratzeko eskubidea galduko du. Hala badagokio, ordurako jasotako zenbatekoa Donostia Sustapenari itzuli beharko dio.

12. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JARRAIPENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN GAUZATZEA

Diruz lagundutako jardueren eta onartutako proiektuen jarraipena egin ahal izango da, bai gauzatzen ari diren bitartean, bai amaitu ondoren.

Donostia Sustapenak jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko edo ekonomiko guztia eskatu ahal izango du, laguntza gauzatzeko eta justifikatzeko prozesuan nahitaez aurkeztu beharreko gutxieneko dokumentazioaz gain.
Laguntzen jarraipenaren eta justifikazioaren emaitzen ondorioz, emandako laguntzen zenbatekoak murriztu ahal izango dira, edo dirulaguntza ez dela behar bezala justifikatu edo bete erabaki ahal izango da, bai deialdi honetan, bai etorkizuneko deialdietan.

Diruz lagundutako jarduerak oinarri arautzaile hauetan ezarritako epeetan eta moduan gauzatu beharko dira. Salbuespen gisa, behar bezala egiaztatutako arrazoi justifikatuak daudenean, Donostia Sustapenak justifikazioa aurkezteko epea luzatzea baimendu ahal izango du, baldin eta onuradunak epea amaitu baino lehen idatziz eskatzen badu. Luzapen horrek ez ditu, inola ere, aldatuko proiektua gauzatzeko epea edo gastuak diruz laguntzeko modukoak izateko aldia. Gastu guztiak 2026ko ekainaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitartean egin eta osorik ordaindu beharko dira.

Jarraipenaren ondorioz egiaztatzen bada onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik laguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ez direla bete edo haietatik aldendu dela, datuak faltsutu, oker eman edo ezkutatu direla, edo jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, laguntza emateko aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabili direla, dagozkion lege-ekintzak abiaraziko dira. Horien artean egon daiteke beste edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko gaitasungabetzea, hala badagokio. Horrek ez du eragotziko dagozkion zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharra.

Proiektuan edo diruz lagundutako jardueretan aldaketak egin behar badira, onuradunak aldaketa horien berri eman eta horiek onartzeko eskatu beharko du, proiektua gauzatzeko epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago. Gainera, Donostia Sustapenak aldaketak ebaluatzeko eskatzen dion dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebehar orokorrak bete beharko dituzte, artikulu hori berariaz aplikagarritzat jotzen baita ondorio hauetarako. Betebehar horien artean, honako hauek daude, besteak beste:

a) Balidatu laguntzaren bidez finantzatutako proiektuak sustatzeko eta zabaltzeko jardueretan Donostia Sustapena finantzatzaile gisa aipatzea. Horretarako, haren irudi instituzionala eta dagokion aipamena txertatu beharko dira erabiltzen diren komunikazio-euskarrietan (webguneak, kartelak, posta elektronikoko bidalketak eta abar).

b) Aurkeztutako proiektuaren baldintzak eta zereginak errespetatzea eta betetzea, Donostia Sustapenak berariaz bestelakorik baimentzen ez badu.

c) Laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.

d) Donostia Sustapenak jasotako laguntzarekin lotuta antola ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpenak, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).

e) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa ezarritako moduan eta epean aurkeztea.

f) Jasotako laguntzen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen- eta/edo ikuskapen-jardueren xede izan daitezkeen bitartean eta, nolanahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.

g) Donostia Sustapenari jakinaraztea helburu eta aldi bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana, baita laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo edo objektibo aldatu izana ere. Jakinarazpena gehienez ere hamabost (15) egun naturaleko epean egin beharko da, inguruabar hori gertatzen denetik zenbatzen hasita.

h) Donostia Sustapenak emandako laguntzekin lotutako eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea.

i) Oinarri hauen 3. eta 4. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzea.

j) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea eta, horretarako betebeharra dagoenean, kontabilitate-liburuak behar bezala eramatea.

k) Hala badagokio, Donostia Sustapenak egin ditzakeen finantza-kontroleko eta egiaztapeneko jardueretan laguntzea, eta eskatzen dion informazio eta dokumentazio guztia haren eskura jartzea.

l) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.

m) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

n) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen eta I+G+b eragileen direktorio digitaletan onuradunaren harremanetarako datuak, jarduera, merkataritza-izena, logotipoa, marka eta jarduera ekonomikoan erabiltzen duen beste edozein bereizgarri argitaratzeko. Horretarako, onuradunak elementu horiek ustiatzeko lizentzia emango dio Donostia Sustapenari, aipatutako helburuetara mugatuta, eta elementu horiek arazorik gabe erabiltzeko eskubidea bermatuko dio.

o) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, euskarari lehentasuna emanez, komunikazio-euskarrietan (webguneak, sare sozialak, posta elektronikoko bidalketak, megafonia eta abar), sustapen- eta zabalkunde-materialetan eta antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan erabiltzen den hizkuntzan, besteak beste. Onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko, betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badituzte. Hilean gehienez 1.000 karaktereko testuak itzultzeko eta 9.000 karaktereko testuak zuzentzeko aukera izango dute. (Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es)

14. ARTIKULUA. LAGUNTZAK ITZULTZEA

Laguntzaren onuradun den pertsona fisiko edo juridikoak jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, diruaren legezko interesekin batera, emandako zenbatekoak ordaindu ziren unetik zenbatzen hasita, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak larriki eta/edo behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larri eta/edo errepikatutzat hartuko dira oinarri hauetan ezarritako betebeharretako bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentuetako edozein faltsua izatea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza, osorik edo zati batean, aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.

- Laguntzaren erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea, oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera, edo justifikazio nahikorik ez aurkeztea.

- Egiaztapen- eta ikuskapen-jarduerei aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo jarduera horiek egiteari uko egitea, onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeenean. Era berean, kontabilitateari, erregistroei edo dokumentuak gordetzeari buruzko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenak zertarako erabili diren, finantzatutako jarduerak benetan eta behar bezala egin diren, edo helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso diren, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, Estatutik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorrita ere.

- Jarduera gehiegi finantzatu bada, gastatu ez den edo gehiegizko finantzaketari dagokion zenbatekoa.
Laguntza itzuli beharko da Donostia Sustapenak oinarri hauetan ezarritako itzulketa-arrazoietakoren bat gertatu dela egiaztatzen duenean eta, jarraian adierazitako baldintzetan, onuradunari horren berri ematen dionean.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostia Sustapenak artikulu honetan aurreikusitako itzulketa-arrazoietakoren bat gertatu dela burofax bidez onuradunari jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.
Aipatutako itzulketa-arrazoietakoren bat gertatzen bada, onuradunak ordaintzeke gera daitezkeen zenbatekoak kobratzeko eskubidea ere galduko du.

Nolanahi ere, laguntza hauen onuradun izateko eskatzen diren baldintzak une oro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzeko eskatu ahal

izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienetan, hala nola datuak faltsutzen direnean edo jasotako laguntza osorik edo zati batean aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzen denean, Donostia Sustapena SAk emandako laguntza baliogabetzea erabaki ahal izango du eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzeko eskatu. Horrez gain, jasotako zenbatekoaren halako bost ordaintzea ere eskatu ahal izango du.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa. Donostia Sustapena SA arduratuko da informazioa kudeatzeaz, tratamenduaren eragile gisa.

Datuen tratamenduaren helburua laguntza-eskabidea izapidetzea eta kudeatzea da.

Tratamenduaren oinarri juridikoa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak baliatzeko. Horretarako, honako arau hauek hartzen dira oinarri: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide-inprimakietan hala adierazten denean, eskatutako datu pertsonalak ematea nahitaezkoa izango da. Datu horiek ematen ez badira edo datu okerrak ematen badira, ezin izango da eskabidea izapidetu.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak laguntza horiek kofinantzatzen dituzten eta/edo Donostia Sustapenarekin haien kudeaketan elkarlanean aritzen diren Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, beharrezkoa denean eta laguntzak emateko prozedura kudeatzeko helburu bakarrarekin.

Era berean, jakinarazten da laguntza emateak onuradunaren identifikazio-datuak jakinaraztea edo lagatzea ekarriko duela. Horretarako, datu horiek eta emandako laguntzaren zenbatekoa Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

Ez da aurreikusten datuak beste hirugarren batzuei jakinaraztea, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik. Era berean, ez da aurreikusten datuen nazioarteko transferentziarik egitea.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu ziren helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, baita helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.
Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako gainerako eskubideak ere, hala dagokienean. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo beharko dute, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia.

Eskubide horiek baliatzean behar bezalako erantzunik jaso ez badute, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan, helbide honetan: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Gasteiz. Nolanahi ere, aldez aurretik eta nahi izanez gero, Donostiako Udaleko Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar daitezke, helbide elektroniko honen bidez: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

Indarrean sartzea eta onartzea

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek osorik onartzea dakar.

Erantzukizunetik salbuestea

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurretik, jarduera egin bitartean edo ondoren sortzen diren kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra. Donostia Sustapena kalte horien ondoriozko erantzukizun guztietatik salbuetsita geratuko da.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira eta, modu osagarrian, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean (DLO) eta lege hori garatzeko erregelamenduan jasotako arauen arabera. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen (aurrerantzean, DLOE). Nolanahi ere, arau horiek Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotako kudeaketa-printzipioei eta lege horren 20.

artikuluan aipatutako informazio-betebeharrei dagokienez soilik aplikatuko dira, lege beraren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoan hala ezarrita baitago.

Gainerako kasuetan, DLO eta DLOE oinarri hauetan lege-testu horietara berariaz jotzen denean baino ez dira aplikatuko.

Donostian, sinaduraren egunean

44158497S IÑIGO OLAIZOLA (R: A20001681)

Digitalki sinatuta norengandik: 44158497S IÑIGO OLAIZOLA (R: A20001681)
Data: 2026.11.10 13:12:45 +01'00'

Iñigo Olaizola Arcaute

Zuzendari Kudeatzailea

Donostia Sustapena SA